

## HITZAURREA

*Irakurle, eskuratzen zaizun liburu hau Europaren mendebaldeko kulturaren oinarrietakoa duzu. Heldear haiek ezer irakatsi baziguten, pentsamenezikiko gogoetak zera guzieren ikerkuntza bideak analitikoki begiratzean datza, eta mendeak igaro ondorean ere beren ikuspegiak nola jorratzen zituzten jakiteak laguntzen gaitu argitasuna lortze bideetan.*

*Euskal Herria inolaz ere ez zela Europaren mendebaldean gorputzenbor bitxi bat, esan zuen Telesforo Aranzadik. Ongi esan ere euskaldunok antzinako heldearrekin hain beharrezko zaigun hurbiltasunera eramateko: «Ezagun ezazu zeure burua eta zaitez zuhur» (Kritia). Sokratek elkarrizketen bidez, bere kideko zituen pentsatzaileekin, gai bakoitzari, gogoeta bidez, helburua aurkitzeko ahaleginak egin zituen, edo, gutienez, irtenbidea idorotzeko. Bere ikasle Platon izan zen elkarrizketok idatziz bildu zituen. Horri esker ezagutzen ditugu gizakien artean lehen aldiz noraino iritsi ziren pentsakizunen ahalmenak: Oturuntzarekin maitasuna erakutsiz, Protogora eta sofistekin izanaren konplexotasunezko arrazoiak, Menonekin gizarte betebeharrak, Karmidarekin jakintza, eta abar, adibidez.*

Guzi horren muina, berebiziko onduen agertu zigun itzultzaileak 1962an sarrera gisa eskaini zigun saio bikain hartan, Platon'eneko atarian deritzanean. Gainera liburuaren azken orrietan. «Platon gure artean» kapituluak erakusten digu euskal idazleak lehendik zetoztela kezkaturik eta Axulargandik Mitxelena arteko aipamenak jartzen ditu lekuko. Bestalde, Piarres Lafittek hitzaurrez agertu zizkigun «Platon'en hirur arpegi» haiek indartzen dute arestian esana.

Itzultzaileaz zer esan? Euskaldungotik begiraturaz, agian, Homero beraren gizuren haietako bat irudi. Bere nortasuna aski ongi erakutsi zigun Josemari Velez de Mendizabalek argitaratu zuen biografia hartan: Iokin Zaitegi (1981)... Neri ez dagokit liburu hark baino argibide gehiago ematerik. Hala ere, Josemariren eskariz egin nion «Oroitario» (Hitzaurre gisa) hartan jarri nituen hitz batzu jasoko ditut, zilegi zaidanez, gizonaren nortasun lekuko: Gogotsua ezezik, kasik gogo hutsa zen Iokin Zaitegiren izakera. Lanari gogor heldu zion. Langiletasunez lortu zituen «amerikak»: baina indianoaren txanpon bilketa baino aisago lortu zuen eralgiketa. Bere herriaren kultur alorretan bazen non eralgi. Nekez lortua, gogoz eman. Minik izatekotan, herri baten iraurarazi nahiak ematen zion larri-mina izan zitekeen. Baina, era berean, idea aberkoien aldeko eskaintzaren atsegina. Ekaitz garaietan burua zutik jarraituz. Ekin eta ekin, berriz ere goldaketan:

*Euskaldun erara itzetan laburra,  
goldean ari naiz lenago bezala:  
otadi-okuntzak labakitu-ala  
ereingiro daiten arbasoen lurra.*

Barne deiaren gogo-mina eta aberri-minez euskararen alde dena eman nahi zuen gizonak. Idazle eta pentsatzaileen lanak euskaraturaz. Mendebaldeko kultur jatorria nahi zuen piztu gudan.

Ez zen lehen aldia Zaitegi zenaren alde nere luma agertzen nuena: itzul langintza honetako lehen liburukiari agurrez eta aburuz artikulua bat argitaratu nuen, 1976ko martxoaren 8an, Donostiako Hoja del Lunes-en. Bertan agertu nituen eritziak gaur egun arrazoi gehiagozko balio dute, zeren hura argitaratzetik ondoko bi urteetan, osasuna eta ondasuna suntsitu arte jarraitu bai zuen goldea ildoan zuela. Bestalde, hor daude bere kemenez Bidez (1981) liburuan eskaini nizkion lerroak (ikus 424-432 orrialdeak).

*Gure historian lehen aldiz euskara hutsean kultur aldizkaria sortu eta hamar urteren buruan bere lepotik irauneraziz, orduan gazte ginen zenbaiti euskaraz idaztera bultzatuz ihardun zen; horregatik, handik sortu zen gerraondoko euskal idazleen belaunaldi berria. Zaitegi bera, aldiz, etengabe hizlauruz zein hizneurtuz sorke-tazko literatura ondoz eta klasiko zaharrak itzuliz igaro zen mundutik: Euripide, Sophokel eta Platon. Horregatik nion: Gai zehatz bati tinko loturik bere bidean zintzo urteetan ari direneta-tik bat Iokin Zaitegi jauna dugu —aitortzen nuen—, duela zenbait urte, Guatemalako San Karlos ikastetxe nagusian gertatu zenean, heladera zekienez, eta Greziako klasikoen irakaskintzak agertu beharrean aurkitu omen zenez, gazterik Loiolan hasi zituen ikas-ketak, Oñan eta Marneffen burutuak berbirtuz eta indartuaz, be-re barnean Platonenganako zaletasuna sakonagotu zitzaion. Maila hortara heldu zen euskaldun eta euskaltzale batentzat zer hoberik Platon euskaratzen hastea baino?. Zaitegik berak esan zigun, be-harrak hortaratu zuela, eta Greziako filosofiaren zale den baten-tzat ez da gaizki esana.*

*Itzulpenaren arrazoi bidetzat Zaitegi beraren hitzak ekarriko ditugu: «Oraingoa ote da Platon? Zaarregia ez aal zaigu gerta-tzen? Gaingiroki, ta axaletik azter badezazu, eztiokezu oraingota-sunik aurkituko nonbait. Platon sakonago azter badezazu, berriz, besterik ikus dezakezu bear bada. Aspaldidanikoa izan arren, oraingo ta betiko izango duzu, gizon den gizona gizonagotzen baitu Platon-ek».*

*Zaitegi zena, zaletu ezezik, apaldu eta Sokratekide bihurtu ere egin zuen Platonen lanak euskaratzeak, eta heladear filosofoaren hitzekin jokatzuz aitortuko zuen: «Ez nator inori ezer irakastera, deus eztakidala iakitera eldu bainintzen aspaldidanik eta egunero asmo orretara ikasten baitiardut.»*

*Bere itzulpen lanerako ez zuen nahi izan Patrizio Azkaratek gazteleratzeko hartu zuen jokabidea, frantsesera egina zen itzul-pena soilik ez baina eredu harturik baliatu, ez; Zaitegiren ustez, Platon euskeratzeko lehenik heladera eta euskara ondo jakin behar dira. Ondorean, beste itzulpen batzuren esperientziaz laguntzeko Frantziako Guillaume Budé elkartearen arauerak begiratu, baina baita beste zenbait hizkuntzatarara egin diren itzulpenak begiratu*

ere. Bere aburuz, ahalik zehatzen emateko, beharrezko izan zitzaizkion liburua aipatzen ditu Platon'eneko atarian deritzan saioaren 297-299. orrialdeetan.

*Hizkuntza du gizonak ideen adierazle. Hori ondo zekiten heladearek eta egundoko tresnatzat garatu zuten beren hizkuntza filosofiaren pentsabide sakontasunetan erabili ahal izateko.*

*Itzulpenak ordea, hor du bere zailtasuna, hizkuntza batean garatutako ideiak beste hizkuntza batean ematean. Hor neurtzen da Zaitegi zenaren lana. Zuzen zuzen baliatu zen heladeratik, Europaren mendebaldeko beste hizkuntzetara itzuliak lagungarri baizik ez zituen erabili, ideia eta esaldi korapilotsuak besteek heladeratik nola jaso eta beren hizkuntzan nola adierazi zituzten ikusiz. Esan nahiaren muina eta adierazteko estiloa orekatu behar zuen: eta, bien artean, ideien fideltasunari ukorik egin gabe jarraitu zuen lerrorik lerro, euskararen ahuleziak gaindituz. Hala ere, batzutan, berez zaila den gaiari ezin errazagorik eskatu. Horregatik: «Platon'en iakite zabal, luze ta sakona ezagutzeko lain zintezke nere irakurleok, beste oberik ager daiteino. Orren usterik izan ezpanu, enukean idaztino au zure eskuetan iarriko» aitortu zuen atariko saio liburuan bere asmoak azaltzean. Eta ongi zion Lafittek hitzaurrean: «Zaitegi jaunaren lanak Platonen alhor zabal joria zabalduko dautzu, irakurtzaille maitea! Harek eskutik hartuko zaitu eta taulenez-taulen lagunduko.». Eta esan dezakegu Zaitegik ondo erabili zituela gure hizkuntzaren baliakizunak edo errekurtsuak.*

*Noiz hasi zituen Platonen lanak? Ataritzak argitaratu zuen liburua, arestian esan dugunez, 1962an argitaratu zuen, baina ordurako Sokrateren elkarrizketa itzulpenok aurrera zeramatzan. 1969an Coban-etik idatzi zidan gutun batean honako argitasun hau agertu zidan: «Platon'en elkar-izketok euskeratuak dauzkak: I- Eutifon, Sokrate'ren Apologia, Kriton eta Faidon. II- Ipia txikia, Alkibiada, Ipia nagusia, Karmida, Laka, Lisi. Bi liburutan eman nahi nituzke orain-arteak. Eta Jainkoak nabi ba'deza, Platon euskeratzen iarraitu gogo dut.»*

*Baina, nonbait, argitara ematean azken itzulpen laneri aurrea eman zion. Honela ba, liburukiz liburuki honako ordena hau hartu zuten: I- Oturuntza, Protagora, Menon; II- Gorgia; III- Euti-*

Alki biada

Sokrate Alki biada

Sokrate 'k. - Kleimia 'ren semca, xerou tamituruk  
 xaitudala koan nago, xere <sup>maitar</sup> ~~xate~~ xehena gortatu  
 ta, bestek bertan behere utrik xaturtecan nerou ba-  
 karra <sup>expainatzen</sup> ~~utrik~~ urundu. Bestek <sup>alder</sup> ~~gortatu~~ xamaldan  
 mekarazi egiten <sup>xinburtu</sup> zindutan, neronek, berria, xain beste  
 urtetan ezizut hitik esan. Horren xoa etzan gira <sup>daimoniar</sup> ~~maitar~~  
 va, <sup>daimoniar</sup> ~~maitar~~ ukoa bairu k: goroago horren indarra-  
 ren berri irango duxu xeronek. Brain aitu ko ez tudan  
 ez bera, xugana netor beru, eta gamerati koan, eta-  
 dala beru aitu ko irango itaropen oneko maix:

fron eta Sokrate-ren Apologia; IV- Kriton eta Faidon; V- Iphia txikia eta Alkibiada.

1979ko abuztuaren 16an hil zen J. Zaitegi. Bere oroitzapenez, artikulua sentikor bat idatzi nuen biharamunean (Landuz nere liburuen 329-333. orrietan dator). Coban-etik egin zidan gutunetik hamar urte igaro ziren. Artean bi liburukietako itzulpenak eta inprimaketak burutu zituen; utzi zituen paperak arakatzear aurkitu genituen gaur ematen dugun VI. liburukia osatzeko plazaratzen ditugun Karmida, Iphia nagusia, Laka eta Lisi. Hauek, Coban-etiko gutunean ikus dezakegunez, itzuliak zituen 1969. urterako. Itzulpenok, mekanografiaturik zeuden. Behar bada orraztapendurik, zeren gutunean aitortzen zidanez «H dontsua eragozpengarri gertatzen zait», eta susmagarri da paperok H-rekin aurkitzea.

Zaitegik, Ameriketatik berriz itzultzean, euskara idatziaren batasunaz bere zalantzak zituen eta Eibarrera bisita egin zidanean, 1976. urtean, baita aholkua eskatu ere, zeren bere adinekoek sakatzen zioten Arantzazun 1968an hartu zen biderik jarrai ez zezan. Gutti gora-behera hala mintzatu nintzaion: Zuk segi zeure kidekoen inguruan, betiko lagunekin aserrerik ez zaizu komeni-ta; ez zaitzela erori grafia kontuko tipikerietan gizakumeentzako inoiz idatzi diren lanik sakonenetan. Balio duena, zure itzulpen lana da, eta era batera edo bestera, edukirik ez da aldatuko.

Hoiek horrela direla, egilearen hilburuko, VI. liburuki hau ber-berak utzi zuen bezala laga dugu. Ezpairik gabe eginen zituen inprimaketara orduko aldaketak eta zuzenketak, baina guri ez zaigu zilegi. Badakigu H guziak ez dituela behar luketen eran, baina irakurlea oroi bedi bere garaiaz. Beste horrenbeste gaineratuko diogu puntuazio erari, uste dugunez ber-berak idatziari zintzo jarraitzea dugula aukerarik hoberena.

Besterik zer gelditzen den Platonek Sokrateren elkarrizketetik bildu zuenetik? Hara oroitzen ditugunak: Ion, zeinekin Sokratek elkarrizketaz aztertu zuen olerkia; Fedrorekin ederra; Parmeniderekin ideiak; Fileborekin atsegina; Timeorekin naturaleza eta Kritiarekin Atlantida. Horiek euskaratzeaz osatuko genuke Zaitegi zenak gogoan zuena, eta gure hizkuntzarentzat zerbitzu egokia bete.

*Baina, irakurle, ez pentsa itzulpen lan guzia burutu gaberik irakurgarri ez denik, zeren elkarrizketen sail bakoitza hasi eta bukatzen baita bere gaiaz. Horrek ematen du edozein zati hartu ahal izateko aukera, besteetaz axolarik gabe.*

*Zaitegi zenak, antzinako greziarren erara gauzak zehatz aztertzeke ikertzaile grina zeraman bere baitan, fantasiari leku guti emanaz. Horregatik, bere itzulpenok berebiziko zehaztasunez ematen ditu. Euskara edukinez hornitzea nahiago zuen hizkuntzaren jatorriaz ametsezko bitxikerietan murgiltzea baino. Hortik ulertzen da Timeo eta Kritia geroagorako uztea. Beste euskaltzale batzuk ordea, hortik hasiko ziren. Horien elkarrizketetan agertzen bait dira ametsezko erresumak, neurri handi batean utopia direnak, baina Platoni Errepublikan edo Estadia deritzan obra burutzeko anitz ideia eskaini ziotenak. Uste denez, mito eta alegietan oinarrituriko asko zen elkarrizketa horietan eta bereziki Kritiaren-gandik sortzen zen Atlantidarena. Geroztik zenbat literatura egin da horren inguruan?*

*Euskararen jatorriaz inon diren bitxikeriarik harrigarrienak erabili dira eta joan zen mendearen azkenalditik Kritiak aipatzen zuen Atlantida ere leporatu zaigu. Lehenik, Timeorekingo elkarrizketan zioen Kritiak Herakleren zutabeak baino harantzago zela Atlantida zeritzon uhartea eta bere izenez agertzen diren elkarrizketetan eman zuen hango gobernamentuaren berri. Geroztik, mendez-mende, gehientzat urperatua zen eta beste batzuen lumak ez dira baretu amets hutsezko teorietan oinarrituz. Euskal herriarentzat ere bazen tokirik, lekutu ezinezkoetan edozerrentzat denez. Frantziako Tolosan 1895. urtean La Dépeche aldizkarian M. Suni zeritzanak argitaratu zuen «Les basques et l'Atlantide» izenburudun artikulu bat eta urrengo urtean Miarrizten argitaratu zuen M. Folinek Atlantes et Basques deritzan liburua. Orduan hasi ziren nor baino nor gehiagoka. Fantasia nahi zuenak bazedukan non ase. Espainia ere ez zen atzean gelditu; hor dugu J. Barbero Garridoren El misterio de la Atlántida y las civilizaciones prehistóricas (1928). «Ikerkuntza» horiei esker, oraingo euskaldun batek euskarazko grafia bereziak ere aurkitu omen ditu Dominikana Errepublikan, euskaldunon bitartez, bi kontinenteetako biztanleen zubi direnak, Ifar-Ameriketako aldizkari batean agertu denez. Hor ba, gure artean haintzat hartzen ez diren hiz-*

*kuntzalariak herbesteetan nola baliatzen dituzten. Berriz ere esango dute inor ez dela bere herrian profeta. Guk ordea, nahiago dugu Kritia berak, beste egoera batean, Karmidari agertzen dion esaldi hura berriz errepikatzea: «Ezagun ezazu zeure burua ta zaitetzuhur».*

*Zuhur behar dugu izan munduko gauza askotarikoez. Protagorak zioen bezala: zerak, gauzak izan badirenaren neurria gizona da, hots, gizadia edo gizatasuna. Hori berori zen Zaitegiren ikuspegia. Eta Platonek bildua, Lafitteren esanetan, «...harek zehar-nabar emanen dautzu begien aintzina, ez baitzaitzu behin ere ahantziren bidatzale argi eta goxo horrekilako atsegina».*

*Zatien aukeraketa aipatu dugu arestian, guziak, bakoitza bere gai eta mailan interesgarriak izan arren. Ni neu, Atiko garaiko erakundeak eta une horietan agertu ziren sofistek kezkatu naute gehienik eta, adibide gisa, aldi horren zertzeladak adieraziz bukatuko dut, behar bada hitzatzetzat har genezakeen hitzaurre hau.*

*Gainera, nere arartekotza betetzeko lematzat hartua dut Atiko aldiko Protagoraren esaldi ospetsua: «Gizona da gauza guzien neurria». Ondo zioen bezala, «direnena, badirenez gero, eta ez direnena, ez direnez gero».*

*Izan ere, edozein ideia, berria den ala lehendik datorkigun jakitearen kezka sortzen zaidan bakoitzean, nere kiko diot, begira ditzadan antzinako heladearrak. Haien esperientziak jakingarri dira, bai jakintza gaietan, bai literaturan, Artea, erakundeak eta baita Herodotoren historia koroniketan ere. Humanista diren orok jakin beharrezko zerak dituzu, irakurle.*

*Protagoraren esaldiak mezutzat emana da: Gizonari ezina zaionez bere ikuspegi eta ulermenetik haruntzago joaterik. Hori duela bere muga, hori muga eta ingurumentzat naturaleza. Hor oinarriturik beude legeak ere gizonarentzat eta ez gizona legezatzat.*

*Nik ordea, bi hizkuntzatan agertu beharrez «zera guzien» jarri beharrean «gauza guzien» ordez jarri dut Patrizio Azkarateren gaztelerazko itzulpenarekin parekatzeko eta ulergarriago egingo duen ustean: baina, ez hobeto, ez eta zehatzago. Euskarak inoiz baditu gaztelerak baino ahalmen egokiagoak holako itzulpeneta-*



rako eta Zaitetik bikain asmatu zuen, Protagoraren sarreran bertan berriz ere aipatuko duenez: «zerak, gauzak izan badirenaren neurria gizona da» argitzean. Zera hitzak badu gauzak baino orohartasun gehiago sofistaren ideia adierazteko. Horregaitik, gauza, ulergarriago izan daiteke, baina ez jatorrago.

Aldi haiek aztertzean maiz aurkitzen dugu gure geure erakunde zaharren itzala.

Grezian, atiko garaiko moralean kontzientzia berrikuntza zekarten sofistek. Izakera desberdinekoak ziren, jakitez eta bizikeraz. Adibidez: beren ekintzaren jarrera nagusitzat zuten jakintza sakondu eta zabaltzea. Hortik hartu bai zuten sophia izana eta izena. Hitz horrek ez zuen gure egunotako zentzura motako itxura. Beren dotrinaren hedakunderako Helade guzian zehar bidaiak egiten zituzten. Beren ekintzaz bizitzera beharturik, irakaskintzak ordaintzen zitzaizkien. Gaur egun, guretzat, hain obizkoa dena, irakaslea ordaintzea, baina garai haietan idealisten aldetik ez zen ondo ikusia. Jakitun haietarik ospetsuenak honako hauek ziren: Protagora, Gorgia, Hipsia eta Prodiko. Maiztasunez biltzen ziren Atenasen, beretarik inor bertakoa izan gabe, hiritarren babes eta onespeneraren jabe zirela, entzuterik aintz izan zuten unibertsitate gisa iharduteko, eta beraien eraginez jendetasun gaiek aurrerapen handia egin zuten.

Sofistak, beren dogmaren betegarri, irakaskintzaren positibotasuna zuten, helburu zehatzik gabe. Hori bai, berentzat, gizartean onohimenak edo birtuteak garrantzi handia zuen. Bestalde, eszeptiko agertzen ziren izanaren eta sineskeren aurrean. Naturalezaren edo Naturalezari buruzko filosofia garatzeaz, munduaren sorkundezko teoria guziak haintzakotzat hartzen zituzten, balio berdintsua emanez; hau da, guziak berdintsu, sorrera frogatu ezinezkotzat. Eszeptikotasun fisiko honetan edo honentzat aurkitu zuen Protagorak betikotasunera eramango zuen esaldi ospetsu hura: «gizona da zera guzieren neurri: direnena, badirenez gero, ta eztirenena, eztirenez gero» (ikus Platon, I, 101. orrialdea), eta ez zen izan esaldi hura erlijio eta moralaren eremuetan eraginik gabekoa. Hortik, moral eta erlijiozko tesiak frogatu ezinezkotzat hartu zituzten aurrerantzean. Sofisten eszeptikotasun horrek hitza bera baliaitza zekarren, hizkuntzaren bidez gogoetetan erabilera baliaitza eta horren irakaskintzak aukerako harrera egokitu zuen garai

haietako Atenas demokratikoan tribunalak eta herri batzarrak bizlariei hain toki zabala eskaintzen zioten unean. Askoren bel-durgarri eta beste askoren itxaropenerako izango zen hizkuntzaren baliabide berriak zekarren eragina. Mundu modernoak probetxurik aski aterako zion hortikako ondorioei.

Baina, ez noa adierazpen hoietan gehiago luzatzera, asko idatzirik bait da gai horietaz. Antzinako kultura hortaz zerbait jakin nahi duenarentzat ez da falta literaturarik, horien artean berezietarik bat Thadée Zielinski-ren *La culture du monde antique*. (1930) izan daiteke. Gure hizkuntza bide delarik giroan buru-belarri sartu nahi duenarentzat ordea, Zaitegiren itzulpenok eskaintzen diguten aukera baino hoberik ez dugu aurkituko. Euskara ez du lehen kolpean uste bezain zaila eta ideiak oso ongi itzuliak ditu.

Honenbestez, bukatu beharrak, Jokin Zaitegi zenak Platon'eneko atarian saioari hasiera emateko hartu zuen Faidonen esaldia oroituko dut: «Hontaz ez dut gauza berririk esaten... berriz eta berriz esandakoetara etorritz noa berriro».

Hondarribia, 1989.9.16

Juan San Martin  
Euskaltzaina.